

LUMA BERRIEN AZTARNAK  
ZURINE ZUBILLAGA



Irudia:  
Kristina Fernandez

**Zurine Zubillaga** NOR DA  
Elizondon bizi den irundarra da. Ofizioz irakaslea, batzuetan idazlea.

*Zurine Zubillaga*

## Hitzak ispilu direnean, edo lekeda

**H**itzak ispiluak bezalakoak izan daitezke. Ispiluak ez ditugu denak gustuko. Ispiluak arriskuak izan daitezke. Ispiluek egiak esaten dituzte, ala gezurrak. Ispiluak hilik daude, baina bizia da haien barnean islatzen dena; eta ez edonorena, gure bizi propioa baizik. Gure irudia da itzultzen digutena, erreala; edo beharbada ez. Bakoitzaren begien arabera da jasotzen dugun irudia. Eta hau diot, begi guztiek ez dutelako gauza bera ikusten, batzuek nahi dutena ikusten dutelako. Pertsona batzuek begi kapritxosoak izaten dituzte eta ez dute egia erakusteko batere intenziorik izaten. Begi gezurtiak dira, manipulatzailak, iruzurtiak. Krudelak, beharbada. Baina, tira, esango nuke begi guztiak direla apur bat kapritxoso, apur bat iruzurti, eta begi guztiek ikusten dutela apur bat ezberdin.

Kontua da, hitzak ispiluak bezalakoak izan daitezkeela. Baina ispiluak ez dira hitzak bezalakoak. Adibide bat jartzearen, topa gaitzke kalean ezagun, lagun edo kideren batekin. Aldarte onean bagaude, jarriko gara bere parean entzuteko; eta era berean, hitz egiteko prest. Eta orduan, une horretantxe bertan utz diezaiokegu tragediari libre bidea. Izan ere, parekoak zabalduko du ahoa eta orduan ez da atzera bueltarik izango. Ahoa zabaldu orduko hasiko dira hitzak borborka bata bestearen atzetik. Orduan aterako dira zaparrada baten pare. Batzuk barnean kontuko ditu, baina beste asko kanpora bultzatuko ditu. Zaparrada horren erdian, posible izan liteke hitz horietako bat ispilu bilakatzea eta belarriekin jaso beharrean, begiekin jasotzea. Ezustean harrapa gaitzake, eta gure irudia izango da itzuliko diguna, parean dugun pertsona estaltzeraino. Honekin, ez dut esan nahi une desatsegina izan behar duenik derrigor; gerta bailiteke, parean deskubritzen zaigun irudia gustukoa izatea, hasiera batean pentsatzen genuena baina ederragoa izatea. Baina tragedia ere ez dut baztertuko; gerta bailiteke, parean sortzen zaigun irudia zatarra eta mingarria izatea. Munstro bat agertzea parean. Munstro ilun eta ezin itsusiago bat, gure begien arabera, noski. Gure antza duen munstroa, edo gu bezalako den munstroa. Kasu honetan, bi izango dira aukerak; bata, ispilua lurrera jaurti eta mila pusketa egitea; bestea,

parean dugun munstroa gu garella onartzea. Bigarren aukera hautatzekotan, adi! Kontuan izan behar baitugu, parean dugun pertsonak ere begi kapritxosoak izan ditzakeela, eta ondorioz, hitzak ere halakoak izango direla.

Baina hitzak, ez dira ispiluak bezalakoak. Hitzak lekeda bezalakoak dira. Hau da egia, eta biribila, gainera.

Lekeda beharrezkoa izaten da kasu batzuetan. Lekeda arriskutsua izan daiteke. Lekedak balio du bi objektu batu nahi direnean; bestela, ez. Lekeda itsaskorra izan daiteke, oso itsaskorra edo ez hain itsaskorra. Denok erabiltzen dugu lekeda maila batean edo bestean. Erabil dezakegu lekeda objektuekin, erabil dezakegu lekeda bikotearekin edo lagun min batekin, erabil dezakegu lekeda gezurrekin.

Kontua da, hitzak lekeda bezalakoak izan arren, lekeda ez dela hitza bezalako. Adibide bat jartzearen; topa gaitzke kalean ezagun, lagun edo kideren batekin. Aldarte onean bagaude, jarriko gara bere parean entzuteko; eta era berean, hitz egiteko prest. Eta orduan, une horretantxe bertan itsas gaitzke nahi ez dugun leku batean. Izan ere, parekoak zabalduko du ahoa eta orduan ez da atzera bueltarik izango. Ahoa zabaldu orduko hasiko dira hitzak borborka bata bestearen atzetik. Orduan aterako dira zaparrada baten pare. Batzuk barnean kontuko ditu, baina beste asko kanpora bultzatuko ditu. Zaparrada horren erdian, posible izan liteke hitz horietako bati lekedaz itsatsita geratzea. Ezustean harrapa gaitzake. Honekin, ez dut esan nahi une desatsegina izan behar duenik derrigor; gerta bailiteke, itsatsi dugun hitz hori oso gustuko izatea. Baina tragedia ere ez dut baztertuko; gerta bailiteke, itsatsi dugun hitz hori mingarria izatea, guk izan nahi ez dugun hori garella esaten digun hitza izatea. Kasu honetan, ez dago aukerarik, lekeda ezin delako hautsi. Beharbada, eta lekeda ez bada hain itsaskorra, ordu batzuk barru askatuko zaigu, edo egun batzuk barru, edo hilabete batzuk barru, beharbada. Lekedaren potentziaren arabera da hori. Ez dugu ahaztu behar, lekedak beti uzten duela arrastoren bat.

Tragediari aurre egiteko beste bide bat ere posible da: lekeda etxean uztea. Hitzak hitz direlako, besterik ez.